

ZURE AUKERA



**Donostiako Udalaren Musika
eta Dantza Eskola**

2024- 25

Ikasturteko Oroitidazkia

Memoria del Curso

2024- 25



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Musika eta Dantza Eskola

943 297 830
info@donostiaeskola.eus
www.donostiaeskola.eus

2024-25 ikasturtea: urteko kudeaketa azaltzen duen txostena (UKT)
Curso 2024-25: Memoria explicativa de la gestión anual (MGA)

AURKIBIDEA | ÍNDICE

0. Sarrera	5
0. Introducción	5
1. Egindako berrikuntza eta hobekuntza proiektu guztiei buruzko txostena	7
1. Un informe sobre todos los proyectos de innovación y mejora realizados	7
1.1 Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP) aldatzea	7
1.1 Modificación del Proyecto Educativo de Centro (PEC)	7
1.2. Enplegu publikoaren egonkortze prozesuak	9
1.2. Procesos de estabilización de empleo público	9
1.3. Txistulari Banda	10
1.3. Banda de Txistularis	10
1.4. Dantza eskolaren ondoko espazioa	10
1.4. Espacio contiguo a la Escuela de danza	10
1.5. Pedagogia Koordinazioa + Jarduerak	10
1.5. Coordinación Pedagógica + Actividades	10
1.6. Atotxako Egoitza	12
1.6. Sede Atotxa	12
1.7. Herrerako Egoitza	13
1.7. Sede de Herrera	13
1.8. Dantza Egoitza	13
1.8. Sede Danza	13
1.9. Auzoak	14
1.9. Sede de Barrios	14
2. Egindako eskolaz kanpoko jarduera eta jarduera osagarri guztien zerrenda eta balorazioa.	15
2. La relación y valoración de las actividades extraescolares y complementarias realizadas.	15
2.1. Atotxako Egoitza	15
2.1. Sede Atotxa	15
2.2 Dantza egoitza	16
2.2 Sede de danza	16
2.3. Auzoetako gelak	18
2.3. Aulas de Barrio	18
2.4. Herrerako egoitza	19
2.4. Sede de Herrera	19
2.5. 2024-25 ikasturteko emanaldiak, kontzertuak eta jarduerak kronologikoki sailkatuak	20
2.5. Actuaciones, conciertos y actividades del curso 2024-25 ordenados cronológicamente	20
3. Langileen prestakuntza programaren balorazioa.	40
3. La valoración del Programa de Formación del Personal.	40
4. Hurrengo Urteko Kudeaketa Planean sartu beharreko hobekuntza proposamenak.	41
4. Propuestas de mejora a ser incorporadas al próximo Plan de Gestión Anual.	41

5. Helburu eta planen balorazioa.	42
5. Valoración de objetivos y planes	42
5.1. Estrategia-prozesuak	42
5.1. Procesos de Estrategia	42
5.2. Zerbitzu-prozesuak	47
5.2. Procesos de Servicios	47
5.3. Euskarri-prozesuak	51
5.3. Procesos de Soporte	51
6. Eranskinak	56
6. Anexos	56

0. Sarrera

2023ko otsailean onartutako 2022/23 - 2025/26 Plan Estrategikoak ikasturteko kudeaketa gitadu du, lehentasunak eta helburuak finkatuz. Plan Estrategikoaren helburuen artean, ziklo osorako, ondorengoak nabarmentzen dira:

- Hezkuntza eskaintza egonkortzea, aurreko plan estrategikoaren hazkunde zikloaren ondoren. Helburua hiriko biztanleen % 1,5eraino iristea da, eskolako ikasle gisa.
- Hiriko bizitza soziokulturalean presentzia izaten jarraitzea, auzoetako elkarte eta eragile sozial eta kulturekin elkarlanean, ikasleen formazioari zentzuan emanez.
- Kalitatea eta iraunkortasun ekonomikoa mantentzea, Eskolaren zerbitzuetarako irisgarritasuna hobetuz, arreta berezia jarritz Ekialdeko Barrutiari eta kalteberatasun egoeran dauden pertsonen. Halaber, Eskolaren egitura eguneratzea, etorkizuneko erronkei aurre egiteko, langileen belaunaldi berritzearekin batera.

Oroïtidazki honek helburu horien lorpen-maila aztertu eta ebaluatzen du.

Eskolaren Antolamendu eta Funtzionamendu Araudiak (AFAk) horrela zehazten du urteko Kudeaketa azaltzen duen Txostenaren funtzioa eta edukia.

77. artikulua. Azalpen txostena (UKT).

1. Erakundearen urteko Kudeaketa azaltzen duen Txostena eskola ebaluatzeko tresna da. Urteko Kudeaketa Plana nola bilakatu den ebaluatuko du, eta baita ikasturtean izan diren gorabehera guztiak eta hurrengo Urteko Kudeaketa Planean jaso beharreko hobekuntza proposamenak ere.

2. Dokumentu horrek honako hauek jaso beharko ditu:

- 1. Egindako berrikuntza eta hobekuntza proiektu guztiei buruzko txostena.*
- 2. Egindako eskolaz kanpoko jarduera eta jarduera osagarri guztien zerrenda eta balorazioa.*
- 3. Langileen prestakuntza programaren balorazioa.*

0. Introducción

El Plan Estratégico 2022/23 - 2025/26, aprobado en febrero de 2023, ha guiado la gestión del curso, estableciendo las prioridades y objetivos. Entre los objetivos del Plan Estratégico, para todo el ciclo, destacan los siguientes:

- Estabilizar la oferta educativa, tras el ciclo de crecimiento del anterior plan estratégico, fijándose como objetivo alcanzar el 1,5% de la población de la ciudad como alumnado de la Escuela.
- Mantener la presencia en la vida sociocultural de la ciudad, colaborando con asociaciones de barrio y agentes sociales y culturales, dando de este modo sentido a la formación del alumnado.
- Mantener la calidad y sostenibilidad económica, con una apuesta por mejorar la accesibilidad a los servicios de la Escuela, con especial atención al Distrito Este y las personas en situación de vulnerabilidad. Asimismo, actualizar la estructura de la Escuela para afrontar los retos futuros, unido al relevo generacional de la plantilla.

Esta memoria analiza y evalúa el grado de consecución de dichos objetivos.

El Reglamento de Organización y Funcionamiento (ROF) de la Escuela, define así la función y contenido de la Memoria explicativa de la Gestión Anual:

Artículo 77. La memoria Explicativa (MGA).

1. La Memoria explicativa de la Gestión anual del Organismo es el instrumento de evaluación de la Escuela. Evaluará el desarrollo del Plan de Gestión Anual, todas las incidencias surgidas en el curso, así como las propuestas de mejora que deban ser incorporadas al próximo Plan de Gestión Anual.

2. En dicho documento se deberán incluir:

- 1.- Un informe sobre todos los proyectos de innovación y mejora realizados.*
- 2.- La relación y valoración de las actividades extraescolares y complementarias realizadas.*
- 3.- La valoración del Programa de Formación del Personal.*



4. Hurrengo Urteko Kudeaketa Planean sartu beharreko hobekuntza proposamenak.

5. Amaitutako ikasturtean Erakunde Autonomoak eginiko ekintza guztiak jasotzeko behar beste eranskin (irakasleen txostenak, matrikula datuak, sustapenak, bileren aktak, prentsan agertutako berriak, ...).

Dokumentu honen sorrerak ondorengo egutegia jarraitu du:

- 1.- Irakasleen norbanako oroitidazkia, maiatzaren 30tik aurrera.
- 2.- Irakasle ez diren langileen oroitidazkia eta inkesta, maiatzaren 30tik aurrera.
- 3.- Kudeatzailea eta Gerentziaren ondokoaren bilerak Prozesu guztietako taldeekin.
- 4.- Zirriborro bizia langile guztiei bidali zaie ekainean, ekarpenak bertan jasotzeko, Artezkaritza Kontseiluak onartu arte.
- 5.- Zirriborroa Eskola Kontseiluan Klaustroan eta Artezkaritza Kontseiluan aurkeztea. Ekarpenak jasotzea.
- 5.- Klaustroak eta Eskola Kontseiluak ikusi ondoren, Erakunde Autonomoaren estatutuen 14.i) artikulua ezartzen duenari jarraiki, Artezkaritza Kontseiluak onartzea dagokio, eskola-jarduerak hasi eta 30 eguneko epean, AFaren 78. artikulua ezartzen duen moduan.

4.- Propuestas de mejora a ser incorporadas al próximo Plan de Gestión Anual.

5.- Tantos anexos como sean necesarios para reflejar la acción del Organismo Autónomo durante el curso concluido (informes del profesorado, datos de matrícula, promociones, actas de las reuniones, noticias aparecidas en la prensa, ...)

La redacción del presente documento ha seguido el siguiente calendario:

- 1.- Memoria individual del profesorado, a partir del día 30 de mayo.
- 2.- Memoria y encuesta del personal no docente, a partir del día 30 de mayo.
- 3.- Reuniones del Gerente y del Adjunto a la Gerencia con los Equipos de Proceso.
- 4.- Remisión del borrador vivo a todo el personal en junio para la recogida de aportaciones, hasta su aprobación por el Consejo Rector.
- 5.- Presentación del Borrador al Consejo Escolar, Claustro y Consejo Rector. Recogida de aportaciones.
- 6.- Visto por el Claustro y Consejo Escolar, procede aprobación por el Consejo Rector, tal y como establece el artículo 14.i) de los Estatutos del Organismo Autónomo, en el plazo de 30 días desde el inicio de las actividades lectivas tal y como se indica el artículo 78 del ROF.

Onarpenerako aurreikusitako data: 2025/10/01

Fecha prevista de aprobación: 01/10/2025

1. Egindako berrikuntza eta hobekuntza proiektu guztiei buruzko txostena

1.1 Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP) aldatzea

2024ko urriaren 8ko Artezkaritza Kontseiluak 2024-25 ikasturteko Kudeaketa Plana onartu zuen.

Planean, 1.2. Pedagogia eta Jardueren Koordinazioa prozesuaren helburuen artean ondorengoa jasotzen zen:

- EHP-a berritu.

Planean jasotzen zen 64/2024 DEKRETUA, maiatzaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko musika- eta dantza-eskolena 2024ko ekainaren 12an argitaratu ondoren, ikasturte honetan Eskolaren Hezkuntza Proiektua (EHP) berritzeko batzordea jarriko zela martxan. Batzordearen zeregina eztabaida koordinatzea eta dinamizatzea eta onartu beharreko dokumentu berriaren lehen bertsioa idaztea izango zen.

Ikasturtean zehar, IHPren aldaketari buruzko eztabaida egin da, lotutako gaiei buruzko hainbat bilera monografiko eginez, eta Euskara eta Berdintasun Batzordeen ekarpenak jasoz.

Indarrean dagoen EHPrekin alderatuta, proposamenak honako aldaketa hauek jasotzen ditu:

64/2024 Dekretura egokitzea: 64/2024 Dekretuak, orain arte indarrean zegoen 289/92ak baino askatasun handiagoa ematen die Musika eta Dantza Eskolei haien autonomia pedagogikoa garatzeko. Autonomia horren zehaztapena, Dekretuaren 67. artikuluan ezartzen den moduan, IHPan egin behar da. Dekretuak, IHPak zein atal izan behar dituen zehazten du.

Indarrean zegoen EHParen egitura Dekretuak eskatzen duenetik gertu bazegoen ere, atal berri batzuk sortu dira Dekretuak zehazten duenera egokitzeko. Hauek dira atal berriak:

- 4. Prestakuntza-plana

1. Un informe sobre todos los proyectos de innovación y mejora realizados

1.1 Modificación del Proyecto Educativo de Centro (PEC)

El día 8 octubre de 2024, el Consejo Rector aprobó el Plan de Gestión Anual 2024-25.

En él, dentro de los objetivos del proceso 1.2. Coordinación Pedagógica y de Actividades se recogía el siguiente objetivo:

- Renovar el PEC

En el Plan se recogía que tras la publicación el 12 de junio de 2024 del DECRETO 64/2024, de 21 de mayo, de las Escuelas de Música y Danza de la Comunidad Autónoma de Euskadi, este curso se formaría una comisión para la renovación del Proyecto Educativo de la Escuela (PEC). Dicha comisión tendría como misión coordinar y dinamizar el debate y asumir la responsabilidad de la redacción inicial del nuevo documento a aprobar.

A lo largo del curso, se ha llevado a cabo el debate en torno a la modificación del PEC, con la realización de varias reuniones monográficas sobre temas relacionados, y recogiendo las aportaciones de las Comisiones de Euskera e Igualdad.

En comparación con el PEC en vigor, la propuesta incluye las siguientes modificaciones:

Adaptación al Decreto 64/2024: El Decreto 64/2024 concede a las Escuelas de Música y Danza una mayor libertad para desarrollar su autonomía que la hasta ahora vigente 289/92. La determinación de esta autonomía pedagógica, tal y como se establece en el artículo 67 del Decreto, debe hacerse en el PEC. El Decreto define los apartados que debe contener el PEC.

Si bien la estructura del PEC vigente era cercana a la exigida por el Decreto, se han creado nuevos apartados para adecuarlo a lo que el Decreto establece. Los apartados nuevos son los siguientes:

- 4. Plan formativo



- 6.3 Bizikidetzarako eta edozein diskriminazio mota baztertzeko irizpideak eta neurriak
- 6.3.1 Hezkidetza: Berdintasun Batzordean landutako hainbat irizpide jaso dira, genero-ikuspegia proiektuaren diseinuan eta curriculum-garapenean txertatu dadin.
- 6.3.2 Kulturartekotasuna: Bertako musika eta dantza tradizioak sustatzeko helburua alde batera utzi gabe, mundu osoko tradizioei atea irekitzen zaie.
- 6.3. Criterios y medidas para la Convivencia y el rechazo a cualquier forma de discriminación
- 6.3.1 Coeducación: Se han recogido una serie de criterios trabajados en la Comisión de Igualdad para la integración de la perspectiva de género en el diseño del proyecto y el desarrollo curricular.
- 6.3.2 Interculturalidad: Sin perjuicio del objetivo de fomentar las tradiciones musicales y de danza locales, se abre la puerta a las tradiciones de todo el mundo.

Horretaz gain, jada EHPn zeuden atalak Dekretuaren terminologia eta egiturara egokitu dira. Horien artean EHPTik (Eskolaren Hezkuntza Proiektua) IHPra (Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua) aldaketa.

Nortasun-printzipioen atala eguneratu da, ingurunearen datuak eguneratuz eta Eskolaren azken urteetako garapena sartuz. Halaber, Eskolak eskaintzen dituen irakasgai eta taldeak eguneratu dira.

Eskolan indarrean dauden hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideetan jasotako jarraibideak ere txertatu dira, hezkuntza eskaintzaren hizkuntzaren definizioari dagokionean eta BGDS edo GLL jasotzen duten pertsonak sartu dira maileguko instrumenturako eskubidea duten pertsonen artean, prezio publikoen irizpideekin bat egiteko.

Eskolak "Musika Gertu" eta "+65" programen bidez egiten duen lanarekin eta Dekretuaren 62 eta 63. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, Eskolaren helburu orokor hau gehitu da:

13. Integrazio komunitarioa eta garapen pertsonala sustatzea, interes bereziko kolektiboei zuzendutako musikako eta dantzako prestakuntza-programen bidez.

Bukatzeko, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak argitaratutako ikasleekiko jardunbide protokoloak (babesgabetasun eta indarkeriaren prebentzioa, ikasle transei eta familiei laguntzekoa, jokabide suizidaren prebentzioa...) aplikagarriak izango direla jaso da.

Además, se han adecuado los apartados ya existentes en el PEC a la terminología y estructura recogida en el Decreto. Entre ellas el cambio de la denominación en euskera de EHP (Eskolaren Hezkuntza Proiektua) a IHP (Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua) aldaketa.

Se ha actualizado el apartado de principios de identidad, actualizando los datos del entorno e incluyendo el desarrollo de la Escuela en los últimos años, así como las asignaturas y conjuntos que la Escuela oferta.

También se han incluido las pautas recogidas en los criterios de uso de las lenguas oficiales vigentes en la escuela, en lo correspondiente a la definición del idioma en la oferta educativa, y se han incluido a las personas receptoras de IMV o AES entre las que tienen asegurado instrumento de préstamo en la Escuela adecuándose a los criterios de aplicación de los precios públicos.

En consonancia con el trabajo que la Escuela viene desarrollando mediante los programas "Musika Gertu" y "+65" y el contenido de los artículos 62 y 63 del decreto se ha incorporado el siguiente objetivo general de la Escuela:

13. Potenciar la integración comunitaria y el desarrollo personal mediante programas formativos de música y danza dirigidos a colectivos de especial interés.

Por último, se ha recogido que serán de aplicación los protocolos de actuación con el alumnado (prevención de la desprotección y violencia, de apoyo al alumnado trans y a las familias, prevención de la conducta suicida...) publicados por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.

1.2. Enplegu publikoaren egonkortze prozesuak

Donostiako “Musika eta Dantza Eskola” TEAren 2022/23-2025/26 Plan Estrategikoak, ikuspegi helburu gakoaren artean, ondorengoa jasotzen zuen: *“Eskolaren egitura eguneratzea, etorkizuneko erronkei aurre egiteko, langileen belaunaldi berritzearekin batera.”*

2023ko abenduaren 12an, Musika eta Dantza Eskola Tokiko Erakunde Autonomoaren Artezkaritza Kontseiluak 2023rako Lan Eskaintza Publikoa onartu zuen. Bertan, erabaki horren 1. eranskinean zerrendatutako funtzionarioen plantillako lanpostuak jasotzen ziren. Akordioa eta haren eranskinak 2023ko abenduaren 29ko GAO-n argitaratu ziren

Lan Publikoaren Eskaintza horretan irakasle lanpostu hauek sartu ziren:

- Irakaslea (Biolina-Biola)
- Irakaslea (Flauta-Saxofoia)
- Irakaslea (Tronpeta-Tronboia-Tuba)
- Irakaslea (Gitarra-Gitarra elektrikoa-Baxua)
- Irakaslea (Bateria-Perkusioa)
- Irakaslea (Saxofoi Modernoa)

Eskolak, hautaketa-prozesu horiek guztiak amaitu ondoren, karrerako funtzionarioak izendatu ditu deitutako plaza bakoitzean.

Langileen ordezkariekin negoziazio prozesu bat egin ondoren, 2024 eta 2025eko Lan Publikoaren Eskaintza, eta deialdietako oinarriak onartu ziren. Dagoeneko martxan jarri dira 2025eko irailean oposizio faseko ariketak egiteko prozesuak.

Hauek dira deitutako lanpostuak:

- Irakaslea (Lengoaia-Gitarraren Pedagogia)
- Irakaslea (Kantu modernoa)
- Irakaslea (Bateria)
- Irakaslea (baxu-elétrikoa-gitarra elektrikoa)
- Irakaslea (biolontxelo)
- Irakaslea (Klarinetea)
- Irakaslea (Pianoa)
- Komunikazioko eta produkzioko teknikaria

Era berean, aurreikusten da 2025-26 ikasturtean deialdia egitea Laguntzaile Tekniko Balioaniztun eta Idazkaritza Teknikoa lanpostuak betetzeko probak egiteko.

1.2. Procesos de estabilización de empleo público

El Plan Estratégico 2022/23-2025/26 del OAL “Escuela de Música y Danza” de San Sebastián, incluía entre sus objetivos de visión clave, el siguiente: *“Actualizar la estructura de la Escuela para afrontar los retos futuros, unido al relevo generacional de la plantilla.”*

Con fecha 12 de diciembre de 2023 el Consejo Rector del Organismo Autónomo Local Escuela de Música y Danza aprobó la Oferta Pública de Empleo para el año 2023, que incluía las plazas de la plantilla del personal funcionario relacionadas en el Anexo 1 de dicho acuerdo. El acuerdo y sus anexos fueron publicados en el BOG de 29 de diciembre de 2023.

En dicha Oferta de Empleo Pública se incluyeron las siguientes plazas de Profesor/a:

- Profesor/a (Violín-Viola)
- Profesor/a (Flauta-Saxofón)
- Profesor/a (Trompeta-Trombón-Tuba)
- Profesor/a (Guitarra-Guitarra eléctrica-Bajo)
- Profesor/a (Batería-Perkusión)
- Profesor/a (Saxofón Moderno)

La Escuela, tras la finalización de todos estos procesos de selección, ha nombrado funcionarios o funcionarias de carrera en cada una de las plazas convocadas.

Tras un proceso de negociación con la representación del personal, se aprobaron las Ofertas de Empleo Público de 2024 y 2025, así como las bases de las convocatorias. Ya se han puesto en marcha los procesos para la realización de los ejercicios de la fase de oposición en septiembre de 2025.

Las plazas convocadas son las siguientes:

- Profesor/a (Pedagogía del Lenguaje-Guitarra)
- Profesor/a (Canto moderno)
- Profesor/a (Batería)
- Profesor/a (Bajo eléctrico-Guitarra eléctrica)
- Profesor/a (Violoncello)
- Profesor/a (Clarinete)
- Profesor/a (Piano)
- Técnico/a de Comunicación y Producción

Del mismo modo, se prevé que durante el curso 2025-26 se realice la convocatoria para la realización de las pruebas para cubrir las plazas de Auxiliar Técnico/a Polivalente y Secretaría Técnica.

1.3. Txistulari Banda

Txistulari Banda 2023-28 Enplegu Publikoa Antolatzeko Planetik kanpo geratu zen. Plan horrek aldaketak aurreikusten zituen lanpostu batzuetako titularrak erretiratzeko unean.

2024-25 ikasturtean, bandaren antolaketaren egiturari buruzko azterketa bat egin da. Eta galdetegi baten bidez, Bandako kideek hainbat alderdiri buruz duten iritzia jaso da.

Datorren ikasturterako geratzen da Txistulari Bandaren Plana 2023-28 Enplegu Publikoa Antolatzeko Planean sartzea. Bertan, egin daitezkeen aldaketak zehaztuko dira, baita Bandako zuzendaritza nola beteko den.

1.4. Dantza eskolaren ondoko espazioa

2023ko azaroan, Eskolak aurreproiektu bat egiteko agindu zuen, Dantza Eskolaren atzetik atxikita dagoen espazioan auditoriuma kokatzeko, Blas de Otero plazaren azpian. Azterketa hau 2024ko apirilean jaso zen.

2024-25 ikasturtean, eta Donostia Kulturako arduradunekin lankidetzan, ondorioztatu da proiektua ez dela bideragarria, hainbat arrazoiengatik: kostua, lortuko litzatekeen espazioaren erabilpen aukerak eta espazioaren parte baterako aurreikusitako beste erabilera batzuk.

Hori horrela izanik, Eskolak beste azterlan bat eskatuko du erabilgarri dagoen espaziori eman liezaiokeen erabileraren bideragarritasuna aztertzeko, dauden mugak ezagututa.

1.5. Pedagogia Koordinazioa + Jarduerak

2024-25 ikasturtean, Eskola Kontseilua berriro behar zen aurreko agintaldia amaitzean. Eskolak zailtasun handiak izan ditu azken urteotan ikasleen kolektiboetan eta ikasleen arduradunetan ordezkaritza lortzeko.

2024-25 ikasturteko lehen hiruhilekoan, erabiltzaileei eta langileei jakinarazi zitzairen Eskola Kontseilua berritzeko prozesua abian zela. Irakasleei eskatu zitzairen beren

1.3. Banda de Txistularis

La Banda de Txistularis quedó fuera del Plan de Ordenación del Empleo Público 2023-28 que preveía transformaciones en el momento de la jubilación de las personas titulares de algunos puestos.

Durante el curso 2024-25 se ha realizado un análisis sobre la estructura de la organización de la Banda. Y mediante un cuestionario se ha recogido la opinión de los integrantes de la Banda sobre distintos aspectos.

Queda pendiente para el próximo curso la incorporación del Plan de la Banda de Txistularis en el Plan de Ordenación del Empleo Público 2023-28. En él se detallarán los posibles cambios a realizar, así como la provisión de la dirección de la Banda.

1.4. Espacio contiguo a la Escuela de danza

En noviembre de 2023, la Escuela encargó la elaboración de un anteproyecto para la ubicación de un auditorio en el espacio adosado por detrás de la Dantza Eskola, justo bajo la plaza Blas de Otero. Este estudio fue entregado en abril de 2024.

Durante el curso 2024-25, y en colaboración con las personas responsables de Donostia Kultura, se concluye que el proyecto no tiene viabilidad para ser realizado por varios motivos: Coste, posibilidades de uso del espacio resultante, otros posibles usos previstos de parte del espacio.

Siendo esto así, la Escuela solicitará un nuevo estudio para analizar la viabilidad de uso que se podría dar al espacio disponible conociendo las limitaciones existentes.

1.5. Coordinación Pedagógica + Actividades

El curso 2024-25 exigía la renovación del Consejo Escolar al finalizar el mandato anterior. La Escuela ha venido experimentando muchas dificultades durante los últimos años para conseguir la representación en los colectivos de alumnado y personas responsables de alumnado.

Durante el primer trimestre del curso 2024-25 se informó tanto a las personas usuarias como al personal trabajador que el proceso de renovación del Consejo



eskoletan ikasleei eta familiei jakinarazteko zeinen garrantzitsua den Eskola Kontseilu oso bat izatea, behar bezala ordezkaturako kolektibo guztiekin.

Azaroan amaitu zen prozesua eta aurkeztutako hautagaitzak aukeratu ziren. Eskola Kontseilu berria 2025eko urtarrilaren 29an bildu zen lehen aldiz ordezkaritza duten kolektibo guztiekin.

Joan den ikasturtean, Eskolak ikasleak Abesbatza Txikira sar zitezen erraztearen aldeko apustua egin zuen, ordu-eskaintza zabalduz. Neurri horrekin batera, astean saio bakar batera murriztu zen Musika Hizkuntza irakasgaia.

Neurri horiek hartu izanak eta Abesbatza Txikiko irakasleek taldeari emandako bultzada izugarriak indartze nabarmena ekarri dute. Bai abesbatza osatzen duten ikasleen kopurua, bai ikasturte honetan EITBrako Gabonetako grabazioetan parte hartu duten jardueren kopurua, beste abesbatza batzuekin kolaborazioak, EMUSIKeko emanaldiak, Izotz Jauregia, Zorroaga...

Eskolak ikasle gazteenei abesbatzarako sarbidea indartzen eta bultzatzen jarraitu behar du, eta beharrezko neurriak hartu behar ditu Abesbatza Gazteak antzeko hazkundea izan dezan.

Eskolak 2024-2025 ikasturtean egin duen iraupen laburreko ikastaroen eskaintzak erantzun ona lortu du ikasleen aldetik. Ikastaroak saio bakarrekoak izan dira, eta larunbat goizetan eskaini dira.

Hauek izan ziren ikasleei eskaini zitzaizkien ikastaroak:

- **MUESCORE:** Otsailaren 8a, 10.00etatik, 13.00ak arte
- **OPENSOT** (Bideo editorea): Otsailaren 15a, 10.00etatik, 13.00ak arte
- **SOINUZTAPENA:** Otsailaren 22a, 10.00etatik, 13.00ak arte
- **AUDACITY** (audio editorea): Martxoaren 1a, 10.00etatik, 13.00ak arte
- **HAIZE-EGURRA INSTRUMENTUEN** mantenurako tailerra: Martxoaren 8a, 10:00etatik, 12:00ak arte
- **HARI INSTRUMENTUEN** mantenurako tailerra: Martxoaren 8a, 10:00etatik, 12:00ak arte
- **PEDALEN ERABILERA** ikastaroa (Gitarra): Martxoaren 22a, 10:00etatik, 12:00ak arte

Escolar estaba en marcha. Se solicitó al profesorado que en sus clases informara a alumnado y familias de la importancia de poder contar con un Consejo Escolar completo, con todos colectivos debidamente representados.

En el mes de noviembre finalizó el proceso y se eligieron las candidaturas presentadas. El nuevo Consejo Escolar se reunió por primera vez el 29 de enero de 2025 con todos los colectivos representados.

El pasado curso la Escuela hizo una apuesta por facilitar el acceso del alumnado al Coro Txiki ampliando la oferta horaria. Junto a esta medida también se redujo a una única sesión semanal la asignatura de Lenguaje Musical.

La adopción de estas medidas y el tremendo impulso que el profesorado de Coro Txiki le ha dado a la agrupación han dado como resultado un fortalecimiento notable. Tanto en el número de alumnos y alumnas que forman parte del coro como de la cantidad de actividades que han realizado este curso, participando en grabaciones navideñas para EITB, Colaboraciones con otros coros, Actuaciones en EMUSIK, Palacio de Hielo, Zorroaga...

La Escuela debe continuar fortaleciendo e impulsando el acceso del alumnado más joven al coro, y tomar las medidas necesarias para que el Coro Joven pueda tener un crecimiento parecido.

La oferta de cursos de duración corta que la Escuela ha realizado durante el curso 2024-25 ha obtenido una buena respuesta por parte del alumnado. Los cursos han sido de una sola sesión y ofrecidos en distintos sábados por la mañana.

Estos fueron los cursos que se ofrecieron al alumnado:

- **MUESCORE:** 8 de febrero, 10.00-13.00
- **OPENSOT** (Editor de vídeo) : 15 de febrero, 10.00-13.00
- **SONORIZACIÓN:** 22 de febrero, 10.00-13.00
- **AUDACITY** (Editor de audio): 1 de Marzo, 10.00-13.00
- Taller para el mantenimiento de **INSTRUMENTOS DE VIENTO MADERA:** 8 de Marzo, 10:00-12:00
- Taller para el mantenimiento de **INSTRUMENTOS DE CUERDA :** 8 de Marzo, 10:00-12:00
- Cursillo sobre el **USO DE PEDALES EN LA GUITARRA:** 22 de Marzo, 10:00-12:00
- **PILATES SUELO** 7 de marzo viernes



- PILATES LURRA martxoaren 7 ostirala
16:00-18:00

16:00-18:00

JARDUERA INTERAKTIBOAK

Ikasturte honetan, 4 jarduera interaktibo berri gehitu zaizkio Mediatekari, eta Genially plataformaren aldaketen ondoriozko akatsak zuzendu dira, aurreko jardueren erabilgarritasunari eragiten diotenak. "2/4an okerreko konpasak identifikatzea", "4/4an erritmoak identifikatzea", "2024ko Abendu Egutegia" eta Breakout "Galdutako bozgorailuak".

Neketsuena eta nabarmenena "Abendu aldiko egutegia" da. Egun bakoitzerako jarduera bat du (24 guztira), eta ikasturte honetan eduki berri batekin sortu da. Jarduera honetako bisitak 600 baino gehiago izan dira egun horietan gaztelaniaz (4.100 interakzio guztira) eta 362 euskaraz (3.400 interakzio guztira).

Azpirarratzekoa da Mediatekarako webgune berria sortu dela. Bertan, itxura desberdina duten jarduera guztiak sartu dira, etiketen eta kategorien sistema batekin, horien bilaketa errazteko.

1.6. Atotxako Egoitza

Gutxi dira ikasle gazteenei edo hasi berriei zuzendutako eskola kolektiboak ematea erabaki zuten espezialitate instrumentalak. Biolinaren kasuan bi talde bereizi daude, bata lehen urteko ikasleentzat eta bestea bigarren urtekoentzat. Klarinete eta saxofoiaren kasuan talde bakarra dago.

Idea hori beste espezialitate batzuetan zabaltzeko zailtasun bat dago, hau da, interesa duten ikasleentzat ordutegi komun bat aurkitzea, eta, gainera, gela handiago bat izatea. Hala ere, klase indibidualak eta klase kolektiboak uztartzearen onurak agerikoak dira aukera hori erabiltzen duten irakasleen iritzia arabera.

Beste urte batez, Eskolak espezialitate guztietan dauden hutsune guztiak eskaini dizkie maiatzaren 7 urteko ikasleei. Horrela, hurrengo ikasturterako zein espezialitate aukeratu erabaki behar duten ikasleek hurbiletik eta irakaslearekin probatu ahal izan dute zer izango litzatekeen tresnaren klase bat. 7 urteko ikasleen familiek eta saio horiek ematen dituzten irakasleek positiboki baloratzen dute ekimena.

ACTIVIDADES INTERACTIVAS

Durante este curso se han añadido a la Mediateca un total de 4 actividades interactivas totalmente nuevas y se ha procedido a la corrección de fallos derivados de los cambios de la plataforma Genially, que afectan la usabilidad de las actividades anteriores. "Identificar compases erróneos en 2/4", "Identificar ritmos en 4/4", "Calendario de Adviento 2024" y Breakout "Los altavoces perdidos".

La más laboriosa y destacada es el clásico "Calendario de Adviento" que contiene una actividad para cada día (24 en total), que este curso se ha creado con nuevo contenido en su totalidad. Las visitas en esta actividad han ascendido en esos días a más de 600 en castellano (con un total de 4.100 interacciones) y a 362 en euskera (con un total de 3.400 interacciones).

Cabe destacar la creación de la nueva web para la Mediateca en la que se han incluido todas las actividades con una apariencia diferente y con un sistema de etiquetas y categorías cuyo fin es facilitar la búsqueda de las mismas.

1.6. Sede Atotxa

Son pocas las especialidades instrumentales que decidieron impartir clases colectivas dirigidas al alumnado más joven o de reciente incorporación. En el caso del violín existen dos grupos diferenciados, uno para alumnado de primer año y otro para los de segundo año. En el caso del clarinete y saxofón existe un sólo grupo.

Existe una dificultad para que esta idea se extienda a otras especialidades, y es la de encontrar una opción horaria común para el alumnado interesado, además de poder disponer de un aula más grande. Sin embargo, los beneficios de poder compaginar las clases individuales junto con la clase colectiva son evidentes según la opinión del profesorado que utiliza esta opción.

Un año más, la Escuela ha ofrecido durante el mes de Mayo todos los horarios vacantes libres existentes en las distintas especialidades al alumnado de 7 años. De esta forma, el alumnado que debe decidir qué especialidad escoger para el siguiente curso, ha podido experimentar de cerca y con el profesor o profesora lo que sería una clase del instrumento. Tanto las familias del alumnado de 7 años como el profesorado que imparte estas sesiones

valora positivamente la iniciativa.

1.7. Herrerako Egoitza

Aurten Herrerako egoitzan ikasturtea hasi eta berehala ikasketa buruaren aldaketa egon da, orain arte egoitzako ikasketa buru zena Atotxara joan bait da.

Azkeneko bi urte hauetan egon diren egonkortze prozesuarekin Herreran lan talde finkoa osatu egin da.

Salto-gelan armairua jarri da horrek lananiztunari lana erreztu dio materiala guztia gela berdinean duelarik. Ordenagailua ere jarri da irakasleen beharrei erantzuteko.

Flauta-Saxo irakasleak jasaten zuen bateriaren zarata konpondu da hirugarren solairutik bigarren solairura jetsiaz irakaslea bertan klasea ematera.

Musika Gertu Herreran, irakasleek ikasleen bila jetsi behar dute patiora eta ondoren jangelan utzi. Eguraldi txarra dagoenean frontoiraino joan behar dute bila, honek klaseko denbora gutxitzea dakar.

1.7. Sede de Herrera

Este año en la sede de Herrera ha habido un cambio de jefa de estudios nada más comenzar el curso, ya que la que estaba hasta ahora se ha trasladado a Atotxa.

Con el proceso de estabilización de los últimos dos años se ha constituido un grupo de trabajo estable en Herrera.

En el aula de psicomotricidad se ha instalado el armario que ha permitido trabajar a la polivalente con todo el material en la misma aula. También se ha instalado el ordenador para responder a las necesidades del profesorado.

Se ha solucionado el ruido que soportaba la profesora de Flauta-Saxo bajando del tercer al segundo piso para dar las clases ahí.

En Musika Gertu Herrera los profesores tienen que ir a buscar a los alumnos al patio y luego dejarlos en el comedor. Cuando hace mal tiempo tienen que ir a buscarlos hasta el frontón, esto supone una reducción del tiempo de clase.

1.8. Dantza Egoitza

Dantzaren egoitza 2024-2025 ikasturtean hasi zen normaltasun erlatiboarekin, izan ere, euskal dantza eta dantza garaikideko postuetan irakasle berriak genituen, joan den ikasturtean martxan jartzen diren postuak egonkortu egin zirelako.

Urtean zehar, irakasle horiek beren lekua sendotzen joan dira, eta eskolako lanera eta funtzionamendura normaltasun osoz egokitzen, ikasleengan dantzarako zaletasuna eta ikasgai eta eskolen egonkortasuna berreskuratzeaz gain.

1. ikasgelaren erabilera txandakatzea irakasleen artean adosten da, batez ere talde ugarienetan edo handienetan etekin handiena ateratzeko eta modu lasaiagoan lan egin eta dantzatu ahal izateko.

Ikasturtean zehar egin diren emanaldi eta jarduerak, ikasleen arteko harremanak aberastu dituzte baita dantza egoitzaren ikuspegi sendoa eskaini ere

1.8. Sede Danza

La sede de danza comenzó el curso 2024-2025 con relativa normalidad ya que en los puesto de euskal dantza y danza contemporánea teníamos nuevo profesorado debido a la estabilización de puestos que se puso en marcha el curso pasado.

En el transcurso de año este profesorado ha ido consolidando su sitio y adaptándose al trabajo y funcionamiento de la escuela con total normalidad además de recuperar en el alumnado el gusto por la danza y la estabilidad en sus asignaturas y clases.

La rotación del uso del aula número 1 es consensuado entre el profesorado para sacarle el mayor partido sobre todo en los grupos más numerosos o de mayor nivel y poder trabajar y bailar de manera más holgada.

Las actuaciones y actividades que se han llevado a cabo del curso, han enriquecido las relaciones entre el alumnado y han ofrecido una visión consolidada de la sede de danza

Ikasturtean zehar egin diren jarduera eta emanaldi guztiekin, dantza-ikasleek praktika eszeniko zabala eskuratu dute, hiriko erreferentziazko ekitaldi eta emanaldietan eta arrazoi sozial hainbatetan parte hartu dute dantzarekiko gustua biziagotuz.

Ikasturte honetan honako lankidetzak hauek egin dira:

- Saxofoi eta dantza klasikoko ikasgaien artean, Elise Hallen omenezko saxofoien topaketan Donostiako udaletxean batera arituz.

- Korrugaitors eskolako taldeak eta dantza klasikoko ikasleek Bulego taldearen abesti ofiziala zuzenean antzeztan lagundu zuten, Euskaraldiari hasiera emateko.

- Eusko Jaurilaritzak antolatzen duen urrezko dominaren banaketa lehen aldiz dantzarien eta euskal dantzako irakaslearen interpretazioarekin babestu da.

Dantza klasikoko III. mailako ikasleekin irteera bat egin da eskolako gazte bandarekin batera Katalunian antolatu den Europako Musikarien -Ritmiks jaialdira, oso balorazio positibo eta aberasgarriarekin.

Bizirik diraute eskolak dantzarekin lotutako hainbat kultur eragileekin dituen harremanak jarduera ezberdinetan parte hartzen Dantzagunea, Dantzerti edo Gipuzkoako Dantza Profesionalen Elkarteak diren eragileekin kontaktua uztartuz Master class, entseguak, eskola irekiak edo emanaldietan elkartrukean lan egiten.

1.9. Auzoak

1 Mailan 5 urteko ikasleentzako programazioa ezartzen hasi da. Ikasturte honetan, irakasleek programazio bera jarraitu dute 3, 4 eta 5 urteko Musika eta Mugimendua tartean. Aurreko ikasturtean bezala, irakasleek unitate didaktikoak aurkezteko saioak egin dituzte.

Musika adineko pertsonen hurbiltzeko proiektuari jarraipena eman zaio, auzoetara joanez eta eskolak emanez, ikasturte osoan zehar, honako elkarte hauen lokaletan:

- "Gure Babesa" Loiolan

Con todas las actividades y actuaciones que se han hecho durante el curso las alumnas y alumnos de danza han adquirido una amplia práctica escénica participando en distintos eventos y actuaciones de referencia y razones sociales de la ciudad avivando además su gusto y madurez por la danza.

Durante este curso se han llevado a cabo dichas colaboraciones:

- Entre las asignaturas de saxofón y danza clásica actuando conjuntamente en el ayuntamiento de San Sebastián en el encuentro de saxofones en tributo a Elise Hallen.

- El grupo de la escuela Korrugaitors y las alumnas de danza clásica colaboraron en representar en directo la canción oficial de Bulego para dar el comienzo al Euskaraldia.

- Por primera vez la entrega a la medalla de oro que organiza el gobierno vasco ha sido apoyada con la interpretación de los bailarines y el profesor de euskal danza.

Se ha realizado una salida con el alumnado de nivel III de danza clásica junto con la banda gazte de la escuela al Festival de Músicos Europeos-Ritmiks que se ha organizado en Cataluña con una valoración muy positiva y enriquecedora.

Se siguen manteniendo vivas las relaciones de la Escuela con diversos agentes culturales vinculados a la danza como son Dantzagunea, Dantzerti o la Asociación de Profesionales de la Danza de Gipuzkoa a través de la participación en diversas actividades, como pueden ser Master class, ensayos, clases abiertas o funciones.

1.9. Sede de Barrios

En el Nivel I se ha comenzado la implantación de la programación para los alumnos de 5 años. Este curso el profesorado ha seguido la misma programación en el tramo de Música y Movimiento de 3 y 4 y 5 años. Se han realizado al igual que el curso anterior sesiones de presentación de Unidades Didácticas por parte de las profesoras

Se ha dado continuidad al proyecto de acercar la música a personas de edad acudiendo a los barrios y dando clases, durante todo el curso en los locales de las siguientes asociaciones

- "Gure Babesa" en Loyola

- Igeldoko Erretiratuen Elkartea

Hurrengo ikasturterako "Nao Etxea" elkartearen lokaletan zerbitzua zabaltzeko aukera planteatu da. Aztertu ondoren, proiektua onartzen da.

Intxaurren auzoan "Kantu artean" proiektua jarri da martxan, Plus 55ekin eta Intxaurren doko kultur etxearekin elkarlanean. Proiektuak taldean abestuz bakarrik bizi diren pertsonen bizitza komunitarioan parte har dezaten bultzatzea du helburu. Hasierak errazak izan ez ziren arren, 8-10 pertsona inguruko taldea egonkortzea lortzen da. Plus 55ek eta Intxaurren doko Kultur Etxeak hurrengo ikasturterako jarduerarekin jarraitzearen alde egin dute.

Harreman ona dago ikastetxeekin eta kultura-etxeekin, eta ez da konpondu ezin izan den zerbitzuaren martxa onari eragiten dion aparteko egoerarik gertatu. Loiolako Erriberako eta Altxako egoitzetara bi piano akustiko eramateko aukera dago, piano klaseen zerbitzua hobetzeko.

- Asociación de Jubilados de Igeldo

Se plantea la posibilidad de ampliar el servicio para el siguiente curso en los locales de la asociación "Nao Etxea". Después de analizarlo se aprueba el proyecto.

